

## **Bandoak Etxalar, 1855-56**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:  
<http://klasikoak.armiarma.com>  
Imanol Trebiño, *Administrazio zibileko testu historikoak*, HAEE-IVAP, 2001  
Bertsio informatiko honen egilea:  
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego  
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,  
nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **Bandoak Etxalar, 1855-56**

### **1855eko abenduaren 26koa**

Hoy dia 26 de Diciembre del 55

Abisuba publicuari

Errecibitu du alcate Jaunac Yruñetic oficio bat illabatia unen oguei eta biyan eguiña, publicaceco emen usacen dan moduan, eta erraiten du badirela zeimbat vecino zor dituztena errentac edo corrituac cembait censorenac lenago cirenac elizaco capellanietaco, biñon gaur direla Governubenac Mayaceren lembicico leguiaren eravera. Proviencia unetaco ceimbait Boletinetan abisatu zayela presentaceco faltaric gabe Yrunian beren tuzten azqueneco pagamentaren recibuarequin; abiyaceco edo idequiceco bacochari bere contuba á la maisterrey nola censubac tuzteney; bañan guti presentatu direla; eta baldin unelaco zorrac tuztenac ezpadire presentanzen zorci egunen buruan Yruñera beren contubac garvicera, biyalico dutela comisionatuba equin gostura eta señalatcen diotlaric ogeita amar errial eguneco. Zorzi egunac comprendicen direla oficuaren fechetic.

Norvaitec balimbadu dudaric edo obequi entenditu nai badu agerceco alcate Jaunarengana.

Publicado este bando por mi el pregonero de la villa el 26 de Dice 1855.

José Tomás de Arburua

### **1856ko otsailaren 10ekoa**

Echalar, 10 de febrero de 1856

Abisuva publicuari

Alcate Jaunac errecibitu du oficio bat Yruñetic ill unun zazpiyan eguiña eta firmatua Juan Monreal comisionatubac elizaco ontasunen salzeco, eta erraiten du Franco vecino erriya unetacuac zorretan daudela censo corrituac lenago apezari pagazen citioztenac, eta gaur nacionari zor tioztenac Mayatzeco lembizico eguneco leguiaren erabera; eta baldin ezpadire presentatzen Yruñian zor tuzten corrituben pagatzera zorzi egunen barrenian eben azqueneco pagamentuen recibuarequin bacoitzari bere contu corrientia idequitzeo; bada ezpadute unela eguiten biyalico dubela comisionatu bat apremiuarequin, eta ordenarequin egoiteco emen bacoitzac bere carta de pago ateri artaño; bada inorc obequi ordena unetaz enteratu nai badu aguertuco da alcate Jaunarengana.

Providencia....Publiquese el precedente Vando por el pregonero José Tomás Arburua en los sitios de costumbre. Fecha de la misma.

El alcalde.

Fermin Zubigaray

Publicado según costumbre por ausencia del pregonero Arburua su encargado. Fecha ut supra.

Martín José de Yribarren.

### **1856ko ekainaren 22ko**

Abisuba publicuari

Alcate Jaunaren partetic emaiten dizubetadicera. Capillanietaco censu corritubac zor tuzten guciyec allegaceco pagacera alic lenena, Yruñeco administradore governuben partetic cobrazalle paratuba dagonarengana; bada unec berac abisacen du beransiya dagola, eta pagacen edutenac laster beren corritu eroriyac Governubari zor tioztenac, onelacuen contra, sentimendu aundiyanarequin bay, bañon obligatuba dagola igorcera beren costura cobrazalliac; bañon etzayola iduricen iñorc emanen dubela motivoric unelaco gaucetaraco, cerengatican gastu antiyac etorrico zarquiyon corritubaz gañera cobrazallien yornalac pagacia. Baldin iñorc obequi yaquin eto enteratu nai badu ordena unetaz, agertuko da alcate Jaunaren gana.

Echalar 22 de junio de 1856.

Publicado por mi el pregonero infraescrito el mismo día de la fecha. José Tomás Arburua.